



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/06/06

Batzar Nagusiek "kontu-errazoiak" emoteko prozesuagaz jarraitzera animau dabe Aldundia

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusia Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordera etorri da, herritarren aurrean kontu-errazoiak emoteko aurrera eroan dauen prozesuaren balorazioa egiteko. Batzarretako taldeen aurrean, Foru Aldundiko arduradunak, zemenditik maiatzera bitartean eskualdeetan egindako 10 topaketen datu garrantzitsuak jaso dituan balantzea eskini dau. Bilera horreetan 650 herritar alkartu ditu. Batzarretako taldeek, Bizkaia Goazen 2030 estrategiaren barruan dagon ekintza horregaz “jarraitzera” animau dabe Aldundiko agintaria.

Guztira, Ahaldu Nagusiari zuzendutako “1.562 proposamen” eta “246 idazki” jaso dira. Bileretara joandakoek topaketen inguruan egin daben balorazio orokorra 5etik 4 puntukoa izan da, eta “gertutasuna” eta “gizarte kohesinoagaz, mobikortasunagaz eta enpleguagaz” erlacionautako gaiak azpimarratu ditue. Hobekuntzarako proposamenei jagokenez, Aldundia “bide azpiegiturretan, garraio publikoan, gizarte arloko politiketan, gazteentzako enpleguan eta enpresa txikiei eta ertainei eta ekintzaileei laguntzeko programetan” kontzentrau daiteela eskatu dabe herritarrek.

Rementeriak, bileretara joandako guztiek erakutsi daben joera “positiboa eta aktiboa” azpimarratu dau, eta bilera horreetan ez dala “ezelango arazorik” hauteman azpimarratu dau. Bizkaian egin dan holango lehenengo esperientzia, Gobernu edegiaren bidean “hobetzen eta ikasten” lagunduko dauen “lehenengo pausua” da, Administrazio gardena eta herritar informauak lortzeko behar dan gitxiengoa gaindituz. Ikuspegi pertsonalari jagokonez, Ahaldu Nagusiaren berbetan “oso esperientzia positiboa” izan da.

Batzarretako taldeen eretz be esperientzia “positiboa” izan da, eta kontu errazoiak emoteko prozesu horregaz “jarraitzera” animau dabe Aldundia, eta baita azterketa prozesuaren ostean hobekuntzak sartzera be. Euren eskarien artean, herritarren eskaerak “xehetasun handiagoz” ezagutzea eta hemendik aurrerako topaketetarako gaien eta eskualdeen arabera antolatutako topaketa “monografikoak” egitea eskatu deusie Rementeriari.

ERRESUMA BATURA EGINDAKO BIDAIA

Saio berean Talde Mistoak Rementeriaren agerpena eskatu dau, berak eta bere taldeko kide batzuek Britainia Handira egin daben bidaiaren “nondik norakoak” azaldu daizan. EH Bilduk, bere aldetik, “Soziedadeen Zergan eta hainbat funtsetan sartutako aldaketen” inguruan “London School of Economics” unibersidadean emondako hitzaldiaren eukiaren gainean galdetu deutso.

Ahaldu Nagusiak gogorarazo dauenez, Britainia Handira egindako bidaiaren helburua Bizkaiko Lurraldea “balioan jartea” eta Bizkaiaentzat eta bertako biztanleentzat eta automobilgintza, aeronautika eta energia sektoreetako enpresa “traktoreentzat” “aukerak bilatzea” izan da, “jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko” ahaleginean, “frutuak batu gura badira, ereitea beharrezkoa dalako”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Helburu horreek beteten lagunduko dauen politika fiskalari jagokonez, hitzaldi haretan bertan esandakoa aitatu dau Rementeriak, komunikabideek eta Bizkaiko enpresariak bere berben inguruan egin ebezan interpretazioetan sartu barik. Hitzaldi haretan, gogorarazo dauenez, “hazkundera erraztuko dauen palankea; kudeaketea zorrotasunez aplikauko dauen eta ikuspegi komuna izango dauen beste politika fiskal bat; eta hazkundera eta aurrerapen inklusiborako beste politika fiskal bat” aitatu ebazan.

Rementeriak gogorarazo dauenez, Bizkaiko Gobernua “arlo fiskaleko erabagiak bukatzen dabil, enpresen inbertsioetarako lurralde erakargarriagoa eta lehiakorragoa izateko. Soziedadeen Zerga erakargarriagoa eta ekintzazailera erraztuko dauen fiskaltasuna gura doguz, eta baita arautegi berezia be, Bizkaira behar egitera datozen profesionalentzat”.

Ahaldun Nagusiak gogorarazo dau, baita be, hitzaldi haretan, enpresa ertainei eta txikiei laguntza emoteko finantzazko “hub” baten sorrera aitatu zala, eta baita barrikuntzarako funts bat be, “herrialde guztia barriztetan jarteko”, “kudeatzaile profesional batek kudeatutako” tresna baten bitartez. Horretarako ekarpenak herritarrengandik urtengo dabe, eta “%15eko” beharpen fiskalak izango ditue zergadunentzat, eta tasa “finkoa” enpresentzat, “merkaduan gertatu daitezkezan aldaketak kontuan izan barik”.

Oposiziotik, Talde Mistoak eskaria egin deutso Aldundiari, “behin eta barriro ekin daian”, Brexita dala-eta zabaltzen dan “aukereaz” baliatuta. Holan, PP urrunago joan da, eta lurraldearen ahalmen fiskalak emoten dauen tresna “parebakoagaz” baliatzeko eskatu deutso, gitxienez, beste leku batzuk daukien Soziedadeen Zerga “maila berean jarteko”, baina Irlandan ikusten dan “low cost-era” ailegau barik.

Beste musturrean, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen eretxiz, Soziedadeen Zergak “bere aukeren azpitik” batzen dau. “Autortu behar da enpresek ez dabela beharko leukien guztia ordaintzen. Irabazi handiak daukiezan enpresa batzuek ez dabe ezer ordaintzen”, esan dau Arantza Urkaregi koalizino abertzaleko batzordekideak, eta kritikau egin dau aurretik akordiorik ez egotea Zergen Koordinazinarako Erakundean. Talde biek eskaria egin dabe, enpresentzako arautegi fiskalaren aldaketa posiblearen inguruko eztabaidea Lurraldeko Batzarretara eroan daiten.

Sozialisten eta jeltzaleen jarlekuetatik, kanpora egindako bidaia horreen alde agertu dira, euren eretxiz “beharrezkoak eta garrantzitsuak” diralako, eta helburu nagusia “enplegua eta hazkundera ekonomikoa” lortzea dalako. PSE-EEko Ekain Ricok ez dau ezelango zalantzarik erakutsi Ahaldun Nagusia “maletea hartzera eta agertoki orokorrean geure lurraldea saltzera” animetako orduan. Jon Andoni Atutxa EAJ-PNVko bozeroaleak, bere aldetik, Batzar Nagusietako eztabaidea bere egunean egingo dala esan dau, Ahaldun Nagusiaren presentzia eskatzea kritikau ostean. “Gai berberen inguruan barriro berba egiteko aitzakia baino ez da”, esan dau, gai horreek aurreko saio batean argitu ebazalako Ogasuneko diputatuak.

KUPOA ETA AMA-SAAD IZENEKOAK

Horren ostean, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS-SAAD) finantzaketaren inguruan egozan “desadostasunak” Kupoaren akordioan jasota dagozan ala ez jakin gura izan dauen EH Bilduren ahozko erantzun-eske bati erantzunez, Ibone Bengoetxea Iraskunde, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako diputatu andreak ez dagola ezelango



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

desadostasunik esan dau. Administrazino zentralak Euskadiko erakundeei zor deutzazan “72,5 milioi euroak”, “tasatuta” eta Estaduak “onartuta” egoan kopurua dira.

Bengoetxeak gogorarazo dauenez, Administrazino Zentralagaz sinatutako akordioaren zortzigarren puntuan “baieztu” egiten da Estaduak Euskadiko erakundeakaz daukan zor hori, eta Kupoan beherapenak eginez ordainduko da “bost urteko epean”. 2017rako, akordioak “10,8 milioi euroko” zenbatekoa ezarten dau, eta kopuru horren %10 –“1.080.000 euro”– Udalek jasoko dabe. EH Bilduko Arantza Urkaregik adierazo dauenez, Udalek “atoan behar dabe” diru hori, euren egoera ekonomikoa kontuan izanda.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
06/06/2017

Las Juntas Generales animan a la Diputación a "continuar" con su proceso de "rendición de cuentas"

El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, ha comparecido hoy en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales para realizar una valoración del proceso de rendición de cuentas con la ciudadanía realizado por él mismo. Ante los grupos junteros, el responsable del Ejecutivo foral ha ofrecido un balance con los principales datos de sus 10 encuentros comarcales realizados entre noviembre y mayo, en los que llegó a reunir a 650 personas. Los grupos junteros han animado al dirigente foral a "continuar" en el futuro con esta acción incluida en la estrategia Bizkaia Goazen 2030.

En total, se han recogido "1.562 propuestas" y "246 escritos" dirigidos al Diputado General. La valoración global de estos encuentros hecha por los asistentes ha sido de 4 puntos sobre 5, destacando la "cercanía" y las explicaciones relativas a "cohesión social, movilidad y empleo". En cuanto a las propuestas de mejora, la ciudadanía ha planteado que la Diputación se concentre en la mejora de "infraestructuras viarias, transporte público, políticas sociales, empleo juvenil y programas de apoyo a pymes y emprendedores".

Rementeria ha destacado la "positiva y activa" postura mantenida por los asistentes en las distintas reuniones, en las que no se detectó "ningún problema". La primera experiencia de este tipo en Bizkaia es "un primer paso" que sirve "para mejorar y aprender" en el camino de Gobierno Abierto, yendo "más allá" de lo que tiene que ser una Administración transparente y una ciudadanía informada. En lo personal, el Diputado General ha calificado la experiencia de "muy positiva".

Los grupos junteros han calificado también de "positiva" la experiencia y han animado a la Diputación a "continuar" con este proceso de rendición de cuentas, así como a introducir mejoras tras concluir el proceso de análisis. Entre sus peticiones, los grupos han pedido a Rementeria conocer "con más detalle" las peticiones de la ciudadanía y establecer encuentros "monográficos" por temas y comarcas para futuros encuentros.

VIAJE A REINO UNIDO

En la misma sesión, el grupo Mixto solicitaba la presencia del Diputado General para conocer los "pormenores" del viaje realizado por él y parte de su equipo a Reino Unido. EH Bildu le ha preguntado también por el contenido de la conferencia ofrecida en la universidad "London School of Economics" en lo referente a las "modificaciones" en el Impuesto de Sociedades y la implantación de "diversos fondos".

El Diputado General ha recordado que el objetivo del viaje a Gran Bretaña fue "poner en valor" el Territorio vizcaíno y "buscar oportunidades" para Bizkaia y sus ciudadanos y para las empresas "tractoras" de los sectores de automoción, aeronáutica y energía, en un esfuerzo por "generar actividad económica y empleo", porque "hay que sembrar para recoger frutos", ha subrayado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En relación a una política fiscal que ayude a cumplir estos objetivos, Rementería se ha ceñido a lo dicho por él mismo en aquella conferencia, sin entrar a valorar las interpretaciones que ofrecieron los medios de comunicación y la patronal vizcaína de sus palabras. En la charla, y como ha recordado, se refirió a “una palanca que facilite el crecimiento; una nueva política fiscal que se haga con rigor en la gestión y con visión común; y una política fiscal para el crecimiento y el progreso inclusivo”.

Rementería ha recordado que el Gobierno de Bizkaia “ultima decisiones fiscales para ser un territorio más atractivo y competitivo para inversiones de empresas. Queremos un Impuesto de Sociedades más atractivo y una fiscalidad que facilite el emprendimiento y una normativa especial para los profesionales que vengan a trabajar a Bizkaia”.

El diputado general ha recordado también que, en aquella conferencia, se citó el nacimiento de un “hub” financiero para apoyar a las pymes y un fondo de innovación “para poner a todo el país a innovar”, mediante una herramienta, “gestionada por una gestora profesional”, con aportaciones que saldrán de la propia ciudadanía y que tendrá deducciones fiscales “del 15%” para sus contribuyentes y con un tipo “fijo” para las empresas “independiente de los cambios del mercado”.

Desde la oposición, el grupo Mixto ha pedido a la Diputación “insistir mucho” aprovechando “la oportunidad” que se abre con el Brexit. En este sentido, el PP ha ido más lejos y le ha espetado a aprovechar la herramienta “única” que supone la capacidad fiscal del territorio para, por lo menos, “igualar” el gravamen del Impuesto de Sociedades respecto a otros sitios, aunque sin llegar a ser un “low cost” como ocurre en Irlanda.

En el otro extremo, EH Bildu y Podemos Bizkaia han señalado que el Impuesto de Sociedades recauda “por debajo de sus posibilidades”. “La realidad es que las empresas no pagan todo lo que deberían. Algunas empresas con muchos beneficios pagan cero”, ha sostenido Arantza Urkaregi apoderada de la coalición abertzale, quien ha criticado que no exista un acuerdo previo en el Órgano de Coordinación Tributaria. Ambos grupos han pedido que se traslade el debate de la supuesta modificación de la normativa fiscal para las empresas al parlamento territorial.

Desde las filas socialistas y jeltzales han apoyado estos viajes al exterior, “necesarios e importantes”, que tienen como objetivo principal “el empleo y el crecimiento económico”. Ekain Rico, del PSE-EE, no ha dudado en animar al diputado general a “coger la maleta para vendernos en un escenario global”. Y el portavoz del PNV Jon Andoni Atutxa, por su parte, ha recordado a EH Bildu y Podemos que el debate en las Juntas Generales se dará en su momento, después de criticar que pidan la presencia del diputado general. “Es una excusa para que volvamos a hablar de los mismos temas” que, según él, ya fueron aclarados en una sesión anterior por el diputado de Hacienda.

EL CUPO Y LAS SAAD

A continuación, en respuesta a una pregunta oral de EH Bildu, que quería saber si en el acuerdo del Cupo con el Estado estaban incluidas las “desavenencias” sobre la financiación del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD), la diputada foral de Administración y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha negado que existan tales desavenencias. Los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“72,5 millones de euros” que debe la Administración central a las instituciones vascas es un montante “cerrado” que estaba “tasado y asumido” por el Estado.

Bengoetxea ha recordado que, en el punto octavo del acuerdo con el Ejecutivo central, “se confirma” esta deuda del Estado con las Administraciones vascas, la cual será asumida vía descuento del Cupo “en cinco años”. Para 2017, el acuerdo establece una cuantía de “10,8 millones de euros” de los que el 10% -“1.080.000 euros”- corresponde a lo que percibirán los ayuntamientos. Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha pedido que los ayuntamientos “precisan ya” estas cantidades debido a su situación económica.